



## Bi ermuar eskubaloiairen goreneko mailan

**HOGETAHIRUNA URTE DAUZKATE MATXALEN ZIARSOLO ETA ESTHER LARREATEGIK. ERMUKO ESKUBALOI TALDEAN HASI ETA DUELA 6 URTE, OHOREZKO MAILAN ARI DEN DONOSTIKO AKABA BERA BERA ESKUBALOI TALDEAK FITXATU ZITUEN. GEROZTIK, EUROPA MAILAN NAHIZ ESPAINIAKO LIGAN, AURRENEKO POSTUETAN ARITU DIRA NAHIZ ETA TXAPELKETA ESKURATZERIK EZ DUTEN IZAN. AZKEN URTEA OSO GOGORRA IZAN DA BIENTZAT. BELAUNEKO LESIOAK IZAN DITUZTE ETA MATXALEN JOKATZEN HASI BADA ERE, ESTHERREK LASTER HASTEA ESPERO DU.**

**-Nola laburbiltzen duzue zuen ibilbidea?**

Pozik gaude emandako pausoarekin. Etorri ginenean, ez genekien zer izango zen hau guzita baina asko ikasi dugu urte hauetan. Lekua ere berria zen, aste guztia hemen pasatu behar, koadrila, etxekoak... Baina jada ohitu gara. Taldean ere,

postua finkatu dugu eta okerrera, azken urtea izan da. Biok izan dugu lesioa belaunean.

**-Ligan ezezik European ere aritu zarete...**

Azken urteotan, beti sailkatu izan gara aurreneko postuetan ligan eta ondorioz, European jokatzeko aukera izan dugu. Bi-

daiatzea dezente tokatu zaigu eta oso pozik gaude. Hegazkinez ere joaten garenez, bidaiak erosoak izaten dira. Europa mailan jokatzeko dugunean, aretoak jendez gainezka ikustea polita da oso.

**-Gurasoak zuen jarraitzaile sutsuenak omen dira...**

Horrela da bai. Hasiera hasieratik he-

men egon dira hutsegiterik egin gabe. Eskertzen diegu euren ahalegina.

**-Elitean ari zarete, eskubaloitik bizitzetik bada?**

Soldatan izan ezik, erabat profesionalak garela uste dugu. Eskubaloian jokatzeko da gure lana, eta horrek, gure bizitza asko baldintzatzen du. Aurten, gizarte segurantzaren ordaintzen hasi gara eta gure baldintzak hobetu dira. Halere, oraindik urrats asko eman behar dira gure soldata erabat profesionala izateko.

**-Egunero entrenatzeko motibazioa zerk sortzen duzue?**

Alde batetik gustoko dugun gauza bat egiteko aukera izateak eta bestetik, asteburuko partiduak. Partidurik ez den astea oso aspergarria egiten zaigu.

**-Gazteak izan arren, noiz arte jarraitu nahi zenukete?**

Lesioek eta gure gorputzek erantzunez gero eta gu gustora gauden bitartean eta maila dugun bitartean jarraituko dugu. Kontratua datorren urtean amaitzen dugu baina luzaroan jarraitu nahi genuke.

**-Komunikabideetan oihartzuna dauka zuen taldeak?**

Gipuzkoa mailan dezente agertzen gara. Jendeak ezagutu egiten gaitu eta komunikabideetatik elkarrizketak egiteko ere deitzen digute. Pixkanaka bagoaz gure tarte eginez.

**-Eskubaloiaz gain, ze egiten duzue egunean zehar?**

Ni (Matxalen), finantzak eta enpresa kudeaketa ikasketak ari naiz eta ni (Esther), arkitektura ikasketak egiten. Ikasketak lasai hartzen ditugu, ikasgai guztiak hartu beharrean, batzuk hartzen ditugu. Horrez gain, zinea, kontzertuak, lagu-

nekin aterata... Bizimodu arrunta daramagu.

**-Ermura sarri etortzen zarete?**

Ahal dugunean bai behintzat. Aste osoa hemen daukagun pisuan ematen dugu eta gustatzen zaigu gure koadrila, senide eta abarrekin ere elkartzea.

**-Gabonetan oporraldirik?**

Abenduaren 22tik 27ra eta 31tik urtarilaren 1era arte. Horiek izango dira gure jaiegunak.

**-Besterik?**

Gure koadrilakoei esan nahi genieke, mesedez ea noizbait gure partiduren bat ikustera etortzen diren! Beraien berotasuna ere behar dugula!!!

Asier Ibaibarriaga



**REYES KARRERE (Akaba Bera Bera Eskubaloi Taldeko entrenatzailea):**

**"Jokalariek gogorrik dira Matxalen eta Esther. Lesio gogorra pasa dute biek. Matxaleneke lesioa garaitzea lortu du eta jokatzeko ari da. Esther astiroago badoa ere, apurka-apurka sartuko da taldean. Matxaleneke abia- dura goraipatuko nuke eta Estheren besoa, goitik beherako jaurtiketa bikaina. Diziiplina gogorra eskatzen du eliteak. Nesken eskubaloia asko hobetu dela esango nuke."**



**MUSIKA  
ESKOLA**

|                      |              |
|----------------------|--------------|
| - Akordeoia          | - Klarineta  |
| - Biolina            | - Panderoa   |
| - Biolontxelo        | - Perkusioa  |
| - Bonbardino         | - Pianoa     |
| - Flauta             | - Saxofoia   |
| - Kantua             | - Trikitrixa |
| - Gitarra            | - Tronboia   |
| - Gitarra elektrikoa | - Tronpet    |
| - Gitarra baxua      | - Txistua    |
| - Lengoia musikal    |              |

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

**ANTONIO BALSERA MORENO**

- Pintore
- Paperestatzaile
- Errotulista

**Zerukoa 1, 6 esk.**  
**943 17 35 25**  
**ERMUA**

**KIROL MEDIKUNTZA  
Indartu**

**ERA GUZTIETAKO MUTUA  
ETA ASEGURUEKIN  
KONTZERTATUA**

**ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA**

- FISIOTERAPIA
- ODOL ATERATZE ZENTROA, EGUN BEREAN ERANTZUNA JASOZ
- 3. ADINEKO MANTENIMENDUA
- MASAJE TERAPEUTIKOA - KIROL MASAJEAK
- ESFORTZU PROBAK
- URGENTZIAK
- KONTSULTA ETA ERREKONNOZIMENDU MEDIKOAK

**Diputazio Etorbidea 8-10 48 260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16**  
**Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: indartu@euskalnet.net**

**URRETA**

burdindenda

|             |                 |
|-------------|-----------------|
| ✕ Etxea     | ✕ Giltzak       |
| ✕ Tresneria | ✕ Zerrailgintza |
| ✕ Brikolai  | ✕ Kit altzariak |
| ✕ Rielak    |                 |

Zeharkalea 8 Tel. 943 17 65 61 ERMUA

**ELUR**

**ESTETIKA-EDERGINTZA**

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegiarako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma

**Aldapa 1** **943 17 60 52**